

PROBA ESPEZIFIKOA

2020ko PROBA

BIOLOGIA

PROBA

ERANTZUNAK





BIOLOGIA

BIOLOGÍA

Aurreko argibideak

Probaren iraupena: ordubete

Azterketak bi atal ditu:

- Lehen atalean, bi gaietako bat garatu behar da: A edo B.
- Bigarren atalean, hiru galderei erantzun behar zaie.

Aintzat hartuko dira:

- Hizkuntza zientifikoaren erabilera.
- Ideiak adierazteko ordena eta heldutasuna.
- Azterketaren aurkezpen egokia.

Aukeratu gai bat: A edo B

(4 puntu)

- A. DNA: konposizio kimikoa, egitura eta funtzioa.
- B. Kloroplastoak: non aurkitzen diren, haien egitura eta funtzio biologikoa.

Erantzun galdera hauei:

(6 puntu)

1.- Azaldu nola gertatzen den proteinen digestioa gizakietan: entzimak eta sortzen diren produktuak. Nola xurgatzen dira eta nola garraiatzen dira lortzen diren produktuak?

(2 puntu)

2.- Antigorputzak. Definizioa, izaera kimikoa eta egitura molekularra. Zer zelulatan sortzen dira?

(2 puntu)

3.- Hartzidura laktikoa eta hartzidura alkoholikoa. Zer dira eta zer ondorio dituzte eguneroko bizimoduan?

(2 puntu)



**EBAZPENA BIOLOGIA
(2020)**

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

GAIK	Puntuak	ERANTZUNAK
A) DNA: konposizio kimikoa, egitura eta funtzioa.	4	<ul style="list-style-type: none">- DNAREN nukleotidoen osagaiak identifikatzea (1,5 puntu)- Bi nukleotido-kateen antolaketa azaltzea (1 puntu)- Chargaffen baliokidetasuna identifikatzea (0,5 puntu)- DNAREN funtzioa azaltzea (1 puntu)
B) Kloroplastoak: non aurkitzen diren, haien egitura eta funtzio biologikoa.	4	<ul style="list-style-type: none">- Landare-zelulen organulu bereizgarria dela adieraztea (1 puntu).- Egitura: bi mintz, estroma, tilakoideak laburki azaltzea (1 puntu).- Fotosintesia:<ul style="list-style-type: none">o Prozesu orokorra adieraztea (1 puntu).o Bi faseak: argi-fasea eta fase iluna laburki azaltzea (1 puntu).
GALDERAK	Puntuak	ERANTZUNAK
1.- Azaldu nola gertatzen den proteinen digestioa gizakietan: entzimak eta sortzen diren produktuak. Nola xurgatzen dira eta nola garraiatzen dira lortzen diren produktuak?	2	<ul style="list-style-type: none">- Digestio mekanikoa eta kimikoa (0,5 puntu).- Urdaileko digestioa (0,5 puntu).- Hesteetako digestioa (0,5 puntu).- Hesteetako xurgapena eta gibelerainoko garraioa (0,5 puntu).
2.- Antigorputzak. Definizioa, izaera kimikoa eta egitura molekularra. Zer zelulatan sortzen dira?	2	<ul style="list-style-type: none">- Antigorputzaren definizioa (0,5 puntu).- Izaera kimikoa: proteina globularra (0,5 puntu).- G immunoglobulinaren egitura molekularra, bi kate luzez (edo astunez) eta bi kate laburrez (edo arinez) osatua (0,5 puntu).- Zer zelulatan sortzen diren: zelula plasmaticoetan (B linfzito diferentziatuak) (0,5 puntu).
3.- Hartzidura laktikoa eta hartzidura alkoholikoa. Zer dira eta zer ondorio dituzte eguneroko bizimoduan?	2	<ul style="list-style-type: none">- Hartzidura laktikoaren prozesua (0,5 puntu).- Hartzidura laktikoaren garrantzia (0,5 puntu).- Hartzidura alkoholikoaren prozesua. (0,5 puntu).- Hartzidura alkoholikoaren garrantzia (0,5 puntu).



EZAGUTZA-ADIERAZLEAK

Galdera	Ezagutza-adierazlea
A	<i>1.1. Materia biziaren konposizioa azaltzea, bioelementuak eta biomolekulak identifikatuz. 1.2. Biomolekulen egitura kimikoa eta biomolekula horiek izaki bizidunetan betetzen duten funtzioa erlazionatzea.</i>
B	<i>2.1. Zelula prokariotoen eta eukariotoen ezaugarri komunak eta bereizgarriak azaltzea. 2.2. Mintzek fisiologia zelularrean betetzen duten funtzioa azaltzea.</i>
1	<i>3.1. Xurgapenaren mekanismoa deskribatzea.</i>
2	<i>6.1 Antigenoa eta antigorputza definitzea.</i>
3	<i>2.6. Bide aerobioaren eta bide anaerobioaren arteko energia-desberdintasunak adieraztea. 5.3. Mikroorganismoek elikagaien industrian zer funtzio duten azaltzea, eta elikagaien produkzioan zer aplikazio dituzten adieraztea.</i>